

# BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2017

Irailaren 23tik  
abenduaren 17ra



# Petritegi

## Sagardoaren jaiotetxea

Petritegiko sagastietan  
Txepetxa dabil kantari,  
mahai ondoan bertsolariak  
elkarren zirikalari.  
Gure etxea ere ez al da  
bide berberean ari?  
Bere onena eskaintzen dio  
hurbildu nahi duenari.



[petritegi.eus](http://petritegi.eus)

## EREMU ZABALA

Bertsoa lotura bat da, eta horregatik Baigorriin hasi eta Barakaldon bukatuko da 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia. Hiru hilabetez zazpi herrialdeetan barna ibiliko gara: Baigorri, Segura, Leitza, Zalla, Zumaia, Tolosa, Bastida, Irun, Maule-Lextarre, Durango, Amurrio, Donibane Lohizune, Iruñea eta Barakaldo.

Ez da kontu sinbolikoa, ez da erakustaldi moduko bat, errealitate baten isla da. Gorabeherak gorabehera, batera edo bestera, bertsolaritza bizirik dagoen eremu zabal baten isla baita Txapelketa Nagusia.

Ez da eremu geografiko hutsa, kultur eta giza eremu bizi baten erakuslea da. Mugimendu zabala da bertsolaritzarena, herriz herri, plazaz plaza agertzen dena. Oholtzan, kalean zein eskolan, ekitaldi intimo zein handietan. Eremu horren muina bertsoa da eta, besteak beste, hari hauskor eta eder hori da Baigorri eta Barakaldo lotzen dituen.



3

### EUSKAL HERRIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Kale Nagusia 70, 20150 Amasa-Villabona, Gipuzkoa - +34 943 69 41 29 - bertsozale@bertsozale.eus

### ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Benito Pérez Galdós, z/g - Amaia Zentroa, 01002 Gasteiz - +34 945 01 05 05 - araba@bertsozale.eus

### BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Zabale kalea, 9 atzea, 48200 Durango - +34 94 681 27 11 - bizkaia@bertsozale.eus

### GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Larramendi kalea, 7 behea, 20400 Tolosa - +34 943 67 05 75 - gipuzkoa@bertsozale.eus

### BERTSULARIEN LAGUNAK ELKARTEA

Laralde - Amotz auzoa, 64310 Senpere - +33 559 54 15 04 - bertsularien-lagunak@bertsozale.eus

### NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Baratzeetako zeharkalea, 2 behea, 31008 Iruñea - +34 948 14 37 47 - nafarroa@bertsozale.eus

### XENPELAR DOKUMENTAZIO ZENTROA

Kale Nagusia 70, 20150 Amasa-Villabona, Gipuzkoa - +34 943 69 42 77 - xenpelar@bertsozale.eus

### LANKU KULTUR ZERBITZUAK

Martin Ugalde Kultur Parkea z/g, 20140 Andoain - +34 943 26 07 55 - lanku@lanku.eus

### MINTZOLA AHOZKO LANTEGIA

Kale Nagusia 70, 20150 Amasa-Villabona, Gipuzkoa - +34 943 69 38 70 - mintzola@mintzola.eus



Erredakzioa:

Bertsosale Elkarte.

Diseinua eta maketazioa:

Lanku Kultur Zerbitzuak.

Argazkiak:

Xenpelar Dokumentazio Zentroa, utzitakoak.

## “FORMULA BERRIAK BILATZEKO, SORTZEKO EDO KOPIATZEKO ZEREGINAK ETENGABEA IZAN BEHAR DU”

**Txapelketa Nagusiaren atarian, bertsogintzaz eta bertsolaritzaz hainbat gogoeta egin ditu Iñaki Murua Bertsozale Elkarteko lehendakariak.**

4

**Bertsozale Elkarteko lehendakaria, bertsolaria... talaia pribilegiatua duzu bertsogintza behatzeko. Zer-nolako egoeran ikusten duzu egun?**

Krisi ekonomikoak eta langabeziak egoera aldapa gora jarri arren, eta zaleen patrikak estatusunean ibiliagatik, plazak saio kopuruari dezente eutsi dio, bereziki formatu txikien alde eginez.

Bertso mailari dagokionez, berriz, ni 80ko hamarkadan hasita ibili nintzen gehien eta ongien; hori joan zen mendea da... Iruditzen zait, nola gaien trataeran hala doinu aniztasunean nahiz ideien planteamenduan, ordukoarekin ez duela zerikusi handirik gaurko bertsogintzak, eta adibiderik nabarientakoa genero ikuspegia bera da.



Baditut nire gustuekiko gehiago betetzea edo osatzea gustatuko litzaidakideen arloak;

esaterako, umorearen edo umoreen lanketa, eta baita plazako saioetan txapelketen patroiairen menpekotasuna saihesteko ahalegina ere; formula berriak bilatzeko, sortzeko edo kopiatzeko zereginak etengabea izan behar du.

**Zein aurreikuspen dituzu txapelketarekin?**

Seguru nago bertsozaleek erantzun bikaina emango diotela txapelketa honi ere eta Euskal Herri osoan antolatutako saioak giro beroan egingo direla, kanturako plaza motibagarriak izango direla eta bertsolariek berena egiteko aukera bikaina izango dutela. Ilusio eta gogoz gainezka ari gara lanean eta gauzak ondo egitea da asebeteko gaituena.

Euskarazko kulturgintzak Bertsolari Txapelketa Nagusia bezalako ekintzak behar ditu; beharrezko astinaldia ematen digu jende andana euskaraz bizitzeko, gozatzeko, asmoz eta pozez biltzeak.

Ekimen honek gure herrian bizi eta euskaraz ez dakitenei edo euskaraz bizi ez direnei ere zer pentsatua eta gogoetarako parada ematen diela uste dut nik. Eta, horrez gain, ez ditugu ahaztu behar atzerritik guregana gonbidatuta etorriko diren beste herrialdeetako inprobisatzaileak eta ikertzaileak.

**Zu ere egon zara euren lekuan. Gomendiorik parte-hartzaileei?**

Aurrez egin nahi eta behar zuten lana burututa joatea Txapelketa Nagusira eta dakitena ongi egiten asmatzea; zaleekin sintonia lortzea; eta bakoitzak egindako ametsak betetzeko zortea, bai bertsolari, gai jartzaile zein epaileei.

**Adin jakin bateko zaleak ditu txapelketak?**

Bertsozaleak beti kitzikatzen ditu Txapelketa Nagusiak eta azken boladan, herrialdeetako txapelketetan edota gazteen sariketetan, lehen gazte izanok jarraitzen dugu saioetara joaten, baina gero eta jende gazte gehiago dabil. Euskara desberdinak, bertsoa ulertzeko era berriak eta betikoak gurutzatzen dira eta publiko anitz horrek ohiturak aldatzea edo jarrera berriak ere ekarri ditu.

**Bazkideen babesa ere azpimarratzekoa da...**

Bertsozale Elkartearen sostengu garrantzitsuena dela aitortzen dut: ezinbesteko oinarria da bertsoaritzaren proiektua hauspotzeko. 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusian gure esker ona aitortu eta lehenasunezko tratua emango diegu, saioetarako bonuak bazkideek soilik erosi ahal izango dituzte eta finalerako zein finalurrekoetarako sarrerak erosteko lehenasuna izango dute urriaren 2ra arte.

**Hedabideetan entzun eta irakurri dugu euskararen erabilerak zerbait behera egin duela. Egoera horretan, zein da bertsoaritzaren lekua?**

Bertsoaritzak, ezinbestean, euskara ikasteko "bizioa" txertatzen dio zaleari, euskaraz jolastekoa eta euskara natural erabiltzeko hautua egiten du. Horren adibide dira Bertso Udalekuak, bertso saioetako entzuleak, bertso eskoletako kideak ...

Euskaltegien lekuan banengo, eta badakit batzuetan egiten dutela, Txapelketa Nagusiaren garaian bertsoak duen tiradizoa baliatuko nuke

eta gainerakoan, herriko edo bailarako bertso eskolarekin akordioa egingo nuke elkarlanerako. Batzuek egiten dute eta urteak daramatzate gainera; zerbaiten seinale izango da!

Administrazioaren lekuan jarrita ere ez daukat dudarik; ikastea zen helburu eta lortu da euskara jende gehiagok jakitea. Zailena eginda dago. Bikain! Eta orain zer? Erabilera bermatzeko bideak sustatuko nituzke, eta, beste batzuen artean, bertsoaritzaz zabal eta sakon ezagutzeko, praktikatzeko, moduak eskura jarriko nituzke bai hezkuntza arautuan, geletan eraginez, eta bai gizartearen, bertso eskolak indartzeko bitartekoak erabiliz, adibidez.

Euskaraz jolas egiteko bideak aukeran jarriko nizkioke jendeari eta proiektu horiek lagundu ez ezik, baita bidelagun eta parte izan ere. Jarrera suharra alegia!



bertsozale.eus

HAMARREKO TXINPARTA



Berezziartua

Sagardo Naturala 1870etik



@SBerezziartua



Sidras Berezziartua Sagardoak



Sidreria Berezziartua



sidrasberezziartuasagardoak

Bere-Aran Etxea  
Iparralde Bidea, 16.  
2015 ASTIGARRAGA  
Gipuzkoa

Tel. (+34) 943 55 57 98

## Final laurdenak

2017-09-23	Larunbata	Baigorri	Ezker pareta
2017-09-30	Larunbata	Segura	Baratze pilotalekua
2017-10-01	Igandea	Leitza	Udal kiroldegia
2017-10-07	Larunbata	Zalla	Mimetiz pilotalekua
2017-10-08	Igandea	Zumaia	Aitzuri pilotalekua
2017-10-14	Larunbata	Tolosa	Beotibar pilotalekua

6

## Finalurrekoak

2017-10-28	Larunbata	Bastida	Udal kiroldegia
2017-11-01	Asteazkena	Irun	Artaleku kiroldegia
2017-11-04	Larunbata	Maule-Lexarre	Ororena Jai-Alai
2017-11-12	Igandea	Durango	Landako gunea
2017-11-19	Igandea	Amurrio	Bañueta kiroldegia
2017-11-26	Igandea	Donibane Lohizune	Jai-Alai
2017-12-02	Larunbata	Iruñea	Anaitasuna kiroldegia

## Finala

2017-12-17	Igandea	Barakaldo	Bilbao Exhibition Centre
------------	---------	-----------	--------------------------

Saio guztiak 17:00etan hasiko dira. Finala, 11:00etan goizeko saioa eta 16:30ean arratsaldekoa.

## FASEAK ETA SAILKATZEA

### Hiru fasetan banatuko da Bertsolari Txapelketa Nagusia: final laurdenak, finalurrekoak eta finala.

**Final laurdenak.** Hogeita hamasei bertsolari izango dira lehian, denak herrialdeetako txapelketetan sailkatuak. Sei bertsolariz osatutako sei talde egingo dira eta saio bakarrera lehiatuko dira. Talde bakoitzeko irabazlea zuzenean pasatuko da hurrengo fasera; puntu gehien batzen dituztenekin osatuko da finalurrekoetara igaroko den taldea.

**Finalurrekoak.** Hogeita lau bertsolari lehiatuko dira fase honetan: izena eman duten 2013ko sei finalista eta final laurdenetako saioetatik sailkatuko diren hemezortzi bertsolari.

Bi itzuli izango ditu finalurreko faseak: lau finalurreko izango dira lehenengoan eta hiru bigarrean. Bi saioetako puntuazioak gehitu egingo dira, baina lehen itzulian puntu gutxien lortu duten sei bertsolariek bigarren itzulian kantatzeko aukera galduko dute. Taldeak aldatu egingo dira lehen itzulitik bigarrenera.

**Finala.** Zortzi bertsolari lehiatuko dira: 2013ko txapelduna eta finalurrekoetatik puntuazioz sailkatutako zazpiak. Hiru saiotan banatuko da ekitaldia: goizean zortzi bertsolariak jardungo dira eta zortzi bertsolariekin emango zaio hasiera arratsaldeko jardunari; azkenean, puntu gehien metatu duten bi bertsolarien arteko lehiarekin emango zaio amaiera. Egun osoko jardunean puntu gehien eskuratu dituen izango da txapeldun.

**Kaiku**

 **Km0**

**GURE ESNEA,**

GURE GASTRONOMIA

BEZALA,

**3 IZARREKOA DA**



## Bertsozale Elkarteak sarrerak aurrez erosteko aukera eskaintzen dizu

	SARRERAK	BAZKIDEAK	GAZTEAK**
FINAL LAURDENAK	12 €	10 €	6 €
FINALERDIAK	15 €	12 €	8 €
FINALA	36 €	26 €	16 €
BONUA*		85 €	

\*Oharra: Bonuak ez du finalerako balio. \*\*Oharra: 6-16 urte bitartekoak hartuko dira gaztetzat.

### Salmenta puntuak:

#### Saioetako sarrerak

- [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atari berrituan sarrera guztiak eskuratzeko aukera izango duzu.
- Final laurden eta finalurrekoetan, saioa jokatu den herrian bertan, salmenta puntuan izango dituzu salgai sarrerak.\*
- Finaleko sarrerak (bazkide eta gazteenak ez) salgai dituzu ohiko salmenta lekuetan.\*
- Saio bakoitzean sarrerak saltzeko mahai bat jarriko da.

\*Salmenta puntuak kontsultatzeko, jo [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) helbidera.

#### Finalerako autobus eta bazkarirako sarrerak

- [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian eta saio bakoitzeko sarreran jarriko den mahaian erosi ahal izango dira. Informazio gehiago aldizkariaren 30. orrialdean duzue.

### Epeak:

- Bazkide bazara, irailaren 12tik sarrera guztiak eskuragarri izango dituzu.
- Bazkide ez bazara, irailaren 12tik aurrera final laurdenetako sarrerak erosi ahal izango dituzu; finalurreko eta finaleko sarrerak urriaren 2tik aurrera.

### Bertsozale Elkarteko bazkideentzako abaintailak:

- Saio guztietan prezio berezia izango duzue sarreretan.
- Txapelketako bonua bazkideok bakarrik eskuratu ahal izango duzue.
- Finalurreko eta finaleko saioetako sarrerak eskuratzeko lehentasuna urriaren 2ra arte.

### Gogoan izateko oharrak:

- Posta elektronikoz jasotako sarrera edozein euskarritan inprimatu daiteke.
- Gailu elektronikoren batean ere aurkez daiteke sarrera.
- Eroslea da sarrerari egiten zaizkion kopia guztien erantzule. Alegia, pertsona bakarra sar daiteke sarreran agertzen den kodearekin.
- Gorde sarrera harik eta ekitaldia amaitu arte.
- Bertsozale Elkarteak ez du sarreraren dirurik itzuliko.
- Sarrerak ez dira zenbakituak.
- Final laurden eta finalurrekoetan, aretoa saioa hasi baino ordu bete lehenago irekiko da.
- Erosketa prozesuan arazoren bat baduzu, deitu +34 943694129 telefonora edo idatzi [bertsosarrerak@bertsozale.eus](mailto:bertsosarrerak@bertsozale.eus)-era.

Bertsolarien  
kontratazioa

 **Lanku**  
[www.lanku.eus](http://www.lanku.eus)





# Hauek ez dira nolana hiko produktuak

Hemengoak dira. Gure marketan bertako ekoizleekin lan egiten dugu, eta kalitatezko produktuak eskaintzen dizkizugu.



Ramón Barreras

Karrantza Harana  
ENsko abeltzaina  
Euskaliko Eroski  
esnea ekoizten du

**EROSKI**  
produktuak



**Euskal Okela**  
Carne de Vacuno  
del País Vasco

BASERRITARRAK



[www.eroski.es](http://www.eroski.es)



**EROSKI**  
zurekin

## Final laurdenak (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
 Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
 Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
 Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
 Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

## Finalaurrekoak

### Lehen itzulia (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
 Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
 Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
 Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean<sup>1</sup>.  
 Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### Bigarren itzulia (16 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
 Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
 Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.  
 Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
 Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

## Finala

### Goiza (15 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
 Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.  
 Banaka, lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.  
 Binaka, gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.  
 Kartzelako lana: banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### Arratsaldea (10 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.  
 Binaka, gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.  
 Banaka, gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

### Buruz burukoa (11 bertso puntuagarri)

Binaka, gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.  
 Binaka, gaia emanda, launa bertso zortziko txikian.  
 Kartzelako lana:  
 Banaka, hitza gaitzat emanda, bertso bat bederatziko txikian<sup>2</sup>.  
 Gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian.

1. Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak lanaren arabera, "Zortzikoa, berdinen moldekoa, 6 puntuz" deitzen zaio seiko motzari Hegoaldean, eta "Sei puntukoa, berdinen moldekoa" Iparraldean.  
 2. Bertso-estrofak izendatzeko irizpideak lanaren arabera, "Hamalaukoa, txikiaren moldekoa, 9 puntuz" deitzen zaio bederatziko txikiari Hegoaldean, eta "Bederatzi puntukoa, txikiaren moldekoa" Iparraldean.



# Marco Polo familia

Goiko Auto berria, Mercedes-Benz-eko «CamperExpert» kontzesionari ofiziala.

Zatuz aisialdirako Marco Polo modelook ezagutu eta probatzera, honako erakusleketan:

C/ Amasorrain 1. DONOSTIA. 943 10 12 12.

C/ Karobi Industrialdea. OLABERRIA. 600 42 40 10.

Pol. Ind. Olaso. Olaso Kalea 23, ELGOIBAR (hurrengo irekitzea).

Hitzordua [www.goikoauto.com](http://www.goikoauto.com) web orrian edo 607 462 249 mugikorrean eska dezakezu. Autoa frogatzen dutenen artean finalerako bi sarrera zozketatuko dira.

Blueefficiencyz hornitutako Marco Poloren erregai kontsumoa (l/100Km):

Hirian: 7,9-6,8/ errepidean: 5,6-5,4/ misto: 6,5-6,0; CO2 isurketak: 158-171 g/km.

Kopuruok ez dira ibilgailu bakarraren isurketarenak edo erregai kontsumoarenak,

ez dira eskaintza baten parte eta ibilgailuen arteko konparaketa egin ahal izateko eskaintzen dira.

## Mercedes-Benz



**GOIKO-AUTO XXI, S.L.** Concesionario Oficial Mercedes-Benz.

C/Amasorrain,1. 20018 DONOSTIA . Tel.: 943 10 12 12.

C/Karobi Industrialdea. 20212 OL ABERRIA. Tel.: 600 42 40 10.

Pol. Ind. Olaso. Olaso Kalea 23, 20870 EL GOIBAR.

## GAI JARTZAILE TALDEA

Aintzane Irazusta Arzallus, Alaitz Rekondo Ferrero, Amaia Castorene Luro, Amaia Ugalde Begoña, Amaieur Lujanbio Agirre, Elisa Almandoz Irigoien, Fernando Anbustegi Goñi, Idoia Anzorandia Kareaga, Iker Iriarte Iribar, Inazio Usarralde Arantzadi, Ion Zaldúa Brit, Joana Itzaina Malharin, Maider Ansa Zugarramurdi, Maite Berriozabal Berrizbeitia, Marta Ugarte Abasolo, Oier Suarez Hernando, Pantxika Solorzano Azarete, Saroi Jauregi Aiestaran.



## EPAILE TALDEA

Ainhoa Aizpurua Insausti, Aitor Jimenez Tolosana, Asier Ibaibariaga Apoita, Ekaitz Elorriaga Anduaga, Eneko Bidegain Aire, Eneritz Azkue Basurko, Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa, Joakin Arregi Goenaga, Jon Abril Olaetxea, Joseba Santxo Uriarte, Jurgi Fuentes Goikoetxea, Karlos Iburguren Olalde, Maite Sukia Olano, Martin Aramendi Arana, Mikel Beaumont Arizaleta, Mikel Fernandez de Arroiabe Idigoras, Mikel Lersundi Ayestaran, Mirari Azula Aurrekoetxea, Nerea Bruño Artazkoz, Zigor Leunda Eizmendi.



euskotren



Saioz bete-betea

dator udazkena.

Zumaia, Irun eta

Durangon barrena

bertsozalez beteta

joango da trenak.



*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

# BAIGORRI

Irailak 23, 17:00, Ezker pareta

14



## Aimar Karrika Iribarren (Auritz, 1988)

18 urte zituenetik hartu izan du parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan eta azken hiru edizioetan finalera ailegatu da. Lehen aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Ander Lizarralde Jimeno (Oiartzun, 1984)

1997. urtean egin zuen lehen plaza, Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan. Oiartzungo bertso eskolako kidea izan da hasieratik eta bertako irakaslea orain dela 12 urtetik. Lehenengo aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Alaia Martin Etxebeste (Oiartzun, 1987)

12 urterekin hasi zen bertsoan eta Oiartzungo, Santutxuko eta Zamalbideko bertso eskolatan aritu da. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hirugarren egin zuen 2011n eta bigarren 2015ean. Bigarren Txapelketa Nagusia du.



## Beñat Ugartetxea Ostolaza (Mallabia, 1979)

Bertsoa etxetik jaso du, aitaren eta anaiaren eskutik. Bizkaiko Bertsolari Txapelketan finalista izan da 2010ean eta 2016an. Aurtengoa bigarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Mikel Artola Izagirre (Alegia, 1989)

Alegiako Zazpi Astoren Gaietan bertso eskolan hasi zen bertsolaritzarekin zaletzen, gero Gasteizen aritu zen eta gaur egun Harituz Tolosaldeko bertsozaleen elkargunean ari da. Lehen aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.



## Xabi Maia Etxeberria (Elizondo, 1981)

Helduaroan hasi zen bertsoan, 2009an Baztango bertso eskola sortzearekin batera. 2013an hartu zuen parte lehen aldiz Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Lehen aldiz parte hartuko du Txapelketa Nagusian.

## BASAIZEA ELKARTEA, HERRIAREN ETA EUSKAL KULTURAREN ALDEKO LAN NEKAEZINA

**Mota guztietako kultur ekitaldiak antolatzen ditu Basaizeak urte osoan zehar, eta horien artean bertsolaritzak leku nabarmena izan ohi du.**

80ko hamarkadan sortu zen Baigorriin Basaizea elkarteak. Aldatu ez dituen hiru helburu argi izan ditu hastapenetik: herria biziartzea, herria euskalduntzea eta Baigorri Euskal Herriko mapan kokatzea, Euskal Herriko beste eskualde, herri eta pertsonekin harremanak sortuz.

Antolatzen dituzten kultur ekimenen artean 1978tik urtero egiten den Nafarroaren Eguna da sonarik handiena duena. Maiatzaren azken igandearekin ospatu ohi da eta aurreko asteetan egiten den Kulturaldiaren amaierako ekitaldia izan ohi da.

Nolanahi ere, Basaizearen ekimena ez da horretara mugatzen; mota guztietako kultur ekitaldiak antolatzen dituzte urte osoan zehar. "Nafarroaren Eguna gure filosofiaren erakuslehoa baldin bada ere, urtean zehar herria biziartzen saiatzen gara ekimen oso anitzak proposatuz: hilabeteko merkaturak, kontzertuak, eztabaidak, filma proiektzioak, antzerkiak...", laburbildu du Amaia Castorene elkarteak kideak.

Kultura ekimen horien barruan, bertsolaritzak ere bere tarteak izaten ditu. "Basaizeak, euskal kulturaren sail aktibo bat bezala, beti egin dio leku bat bertsolaritzari bere egitarauan, izan bertso afari



edo sorkuntza berezi baten bitartez. Horrez gain, Bertsularien Lagunak elkartearekin bertso saioak antolatuak izan dira: Hermandorena saria, Xilaba...".

Gaur egun Basaizea osasuntsu dagoela dio Castorenek, 100 kide inguru ditu elkarteak, belaunaldi desberdinak batzen ditu, "eta sekula baino ideia ugariago ditugu geroari begira".

Horrez gain Baigorriin abian dagoen beste proiektu garrantzitsu bat ere sostengatzen du Basaizeak, Etxaizia nafarren etxearena. "Nahiz eta bi elkarte desberdin izan helburuek bat egiten dute: herria eta euskal kultura biziartzea eta Euskal Herriari ideki. Horregatik, behin baino gehiagotan ekitaldiak antolatu ditugu egitasmo hori gauzatzeko xedearekin".

**AÑOTA**  
Sagardotegia • Sidrería  
JATETXEA • RESTAURANTE



# SEGURA

Irailak 30, 17:00, Baratze pilotalekua

16



## Ander Fuentes Mujika "Itturri" (Zubieta, 1979)

2006an hasi zen bertsoan eta bi urte geroago hartu zuen parte aurreneko Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Gaur egun Leitzako eta Lekunberriko bertso eskoletan aritzen da. 2017koa lehenengo Txapelketa Nagusia du.



## Beñat Iguaran Amondarain (Amasa-Villabona, 1988)

Txikitatik datorkio bertsozaletasuna eta hainbat sariketan parte hartu izan du. Gaur egun Lasarteko eta Tolosaldeko bertso eskola ibiltarian ari da. Lehenengo aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Felix Zubia Olaskoaga (Zarautz, 1974)

Bere kasa ikasi zuen bertsoan, bertso zaharrak kantatuz. 1998an Zarauzko Motxian bertso eskolan hasi zen eta hurrengo urtean lehen plaza egin zuen. Bigarren aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Jon Martin Etxebeste (Oiartzun, 1981)

Gazte hasi zen bertsoan eta geroztik sariketa eta txapelketa askotan hartu du parte. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan bigarren egin zuen 2003an. Laugarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Nerea Elustondo Plazaola (Legazpi, 1981)

Hamahiru urterekin hasi zen bertsoan eta gaur egun Legazpiko Bertso Olariak taldeko kidea da. 2001ean hartu zuen parte lehen aldiz Bertsolari Txapelketa Nagusian eta aurtengoa hirugarren parte hartzea du.



## Unai Gaztelumendi Arandia (Añorga, 1988)

Bertsolaritzarekiko harremana oso txikitatik hasi zuen, aitaren eskutik. Bertso eskola askotan ibilia, gaur egun Antiguakoan ari da. Estreinakoz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## TXAPELKETAREKIN BAT EGINGO DU BERTSO ESKOLEN EGUNAK

Egun osorako jaia antolatu du aurten ere Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak. Tartean izango da Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketa saioa, Segurako Baratze pilotalekuan.

Bertsolaritzaren topagune izango da Segura irailaren 30ean. Batetik, Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketa saioa jokatu delako eta, bestetik, han ospatuko delako aurtengo Bertso Eskolen Eguna.

Elorripe herriko tabernan emango zaio hasiera festari; 12:30ean izango da hori. Tripa-zorriak dantzan hasi ahala, 14:00etan bazkaria eskainiko da plazan, Iparra Hegoaren eskutik. Bazkarirako txartelak eskuragai izango dira irailaren 24ra arte [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian, 15 euroren truke.

Bazkalostean, Bertsotruk bertso eskolen arteko desfioen hirugarren edizioa aurkeztuko da parte hartzaileekin. 2015ean antolatu zuen lehen aldiz ekimena Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak eta geroztik hainbat bertso eskolak hartu izan dute parte: guztira, urtero 30 bat saio egin izan dira bertso eskolen artean, beren arteko harremana sendotuz.

Jarraian, Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketa saioari egingo zaio bide, eta hura amaitzean, Bertso Eskolen Eguna jarraipena izango du: 20:00etan, afari mokadua eskainiko du Elorripe herriko tabernak eta Julene Otaegi

eta Jone Uria trikitilariak girotuko dute otordua. 23:00etan eMePebo5t taldearen kontzertuak biribilduko du eguna.

### 2011tik helduen bertso eskolen topagune

Zazpigarren Bertso Eskolen Eguna da aurtengoa. 2011n egin zen lehen Lesakan eta geroztik Zarautzen, Markina-Xemeinen –han ere 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusiarekin bat egin zuen–, Senperen, Agurainen eta Portugaleten izan da.



bertsozale.eus



# KUGA BERRIA



Feel the difference

**MUGARRI** Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE

## LEITZA

Urriak 1, 17:00, Udal kiroldegia

18

**Agin Laburu Rezola** (Astigarraga, 1985)

Txikitatik hasi zen bertsoan eta, besteak beste, Lizardi, Xenpelar eta Plazatik Gaztetxera sariketak irabazi ditu. Hernaniko bertso eskolako kidea da. Bigarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.

**Iñaki Apalategi Astigarraga** (Beasain, 1982)

15 urterekin Goierriko bertso eskolan hasi zen eta gazte mailako hainbat sariketa irabazi ditu. Ordutik plazako jarduna eta txapelketak tartekatu izan ditu. Bigarren aldiz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.

**Julio Soto Ezkurdia** (Gorriti, 1987)

Iruñeko bertso eskolan trebatua, hirutan irabazi du Nafarroako Eskolartekoa. Egungo Nafarroako txapelduna da, lau aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Hirugarren aldiz kantatuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.

**Oihana Bartra Arenas** (Bilbo, 1984)

Santutxuko bertso eskolan hasi zen bertsoan. Lehen plaza 1999. urtean egin zuen, eta bitan irabazi du Bizkaiko Eskolarteko Txapelketa. Hirugarren aldiz kantatuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.

**Oihana Iguaran Barandiaran** (Amasa-Villabona, 1991)

10 urterekin ikastetxean lehen bertsolaritza eskola jaso zuenetik hurbildu zen bertso eskolara eta bertan segitzen du. Harituz bertsozale taldeko kidea da. Lehenengoz kantatuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.

**Unai Agirre Goia** (Hernani, 1975)

Hamar urterekin hasi zen bertsoan, ikastolan. Bertsolari gazteentzako Lizardi sariketa bitan irabazi du eta behin Orixe sariketa. Hernaniko bertso eskolako kidea da. Bosgarren aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusian.

## “EGUN HIRU BELAUNALDI NAHASTEN DIRA BERTSO ESKOLAN”

**Pilotak, harriak eta bestelako herri kirolek gehiago erakartzen duten arren, etorkizun oparoa aurreikusten zaio Leitzako bertsogintzari.**

Zortzi urte pasatu dira leitzarrentzat azken Bertsolari Txapelketa Nagusitik, lau urtetik behin gauzatzen bada ere, azkenekoz 2009an izan baitzen han. Orduko hartan herriak ahalegin handia egin zuela gogoan du Miel Mari Elozegi “Luze”-k eta aurtengoan ere hala izatea espero du.

2001ean sortu zen bertso eskola, Diego Riañoren eta Elosegiren beraren eskutik. “Orduan ez genion bertso eskola deitzen, ez baikenuen irakaslerik: Diego eta ni neu batzen ginen eta pixkanaka jende gehiago hurbildu zen. Egun zazpi lagun gabiltza, eta hiru belaunaldi nahasten dira”, azaldu du.

Urteetan Leitzako erreferentzia Manuel Lasarte izan da. “Leitzan jaio zen bera; gero, 12 urterekin, Aia eta Orio aldera joan bazen ere. Haren belaunaldiko bertsolari asko dago Leitzan, baina gehienak ez dira txapelketan ibiliak; erreferentziarik gertukoena Juan Perurena goizuetarra genuen. Gero etena egon zen, eta gazte gutxi”. 2001ean, joera hori iraultzeko, bidea abiatu zuen bertso eskolak.

“Iaz 15. urteurrena bete genuen eta jendea hasi da gutaz oroitzen”. Beren toki propioa ere egin dute bertso plazan: abuztuaren erdialdean egiten diren San Tiburtzio jaietako ohiko saioaz gain, beste bat egiten baitute formatu xumeagoan. “Festetan

muturra sartzen hasi ginenean, dastaketetan eta antzerakoetan kantatzen genuen eta jendeak kasu gutxi samar egiten zigula-eta, Aurrera Elkartearen atarian dagoen plaza txikian saioa egiten hasi ginen. Eta oso pozik gaude. Lehen urtean 20 bat lagun, gerora 30...; hurbileko saioa da eta gu ere oso eroso sentitzen gara. Gure tokia aurkitu dugu”. Leitzan, gainera, zaleak erakartzea ez da egiteko



Arg.: Leitzako bertso eskola.

erraza, han badira-eta errotutako bestelako zaletasun batzuk, pilota edota herri kirolak kasu. “Egun Leitzako bertsozale klasikoa gutxi hurbiltzen da: profil gazteago bat dugu. Aizkorak, harriak, herri kirolek askoz ere jende gehiago erakartzen dute gurean, baina pixkanaka goraka goaz. Gu oso pozik gaude, atzetik datozen gazteek gorakada hori sendotu dezaketela ikusten dugulako”.

Bide berriak  
Iparraldeko abentura  
parkerik handiena  
Haurrentzako gune berriak

Tiri Sarri  
LAND

Informazio gehiago:  
Tf. 948 928 922  
www.irrisarriand.eu

## ZALLA

Urriak 7, 17:00, Mimetiz pilotalekua

20

**Eneko Abasolo Txabarri “Abarkas”** (Iurreta, 1976)

Gaztetatik kultura arloko gauzetan ibilia da, dantza taldean, kultura taldean eta bertso eskolan. Bizkaiko Eskolartekoan egin zuen lehen plaza. Aurtengo bigarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.

**Jone Uria Albizuri** (Getxo, 1990)

Bederatzi urterekin ikastolan hasi zen bertsolaritza lantzen eta 2008an lehenengoz hartu zuen parte Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Algortako Bertsolari Eskolako kidea da. Hirugarren aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusian.

**Miren Amuriza Plaza** (Berriz, 1990)

Hamabi urterekin hasi zen bertsotan Berrizko bertso eskolan eta hainbat sari lortu ditu eskolarteko sariketetan. Bertso eskoletan aritu da irakasle; gaur egun Berrizkoan ari da. Hirugarren Txapelketa Nagusia du.

**Odei Barroso Gomila** (Urruña, 1988)

Bertsotan hamahiru urterekin hasi zen eta geroztik horretan dihardu. Xilaban lehen ediziotik hartu du parte. Poeta, kantaria eta musikaria, ZZIO rap taldeko kidea ere bada. Hirugarren aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusian.

**Oihane Perea Perez de Mendiola** (Gasteiz, 1977)

Hamabi urte zituenean Gasteizko bertso eskolan hasi zen. Egungo Arabako txapelduna da; lau aldiz irabazi du Arabako Bertsolari Txapelketa. Laugarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.

**Onintza Enbeita Maguregi** (Muxika, 1979)

Umetatik bertso giroan hezia, gaztetatik hasi zen bertsotan. 2006an iritsi zen lehenengoz Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalera, eta harrezkero izan diren final guztietan egon da. Laugarren Txapelketa Nagusia du aurtengo.

## “ZALLA GUNE EUSKALDUN BEZALA EZAGUTARAZTEKO GARRANTZITSUA DA GURETZAT TXAPELKETA”

Urriaren 7an Bertsolari Txapelketa Nagusiko kanporaketa jokatuko da Zallako Mimetiz pilotalekuan; Txapelketa Nagusiko saio bat hartzen duen lehen aldia izango da. Hango bertso eskolako kidea da Amaia Portugues.

21

### Zenbat kide zarete bertso eskolan?

Helduen bertso eskolan zazpi gara, baina gazteen taldeak ere badaude.

### Eta Enkarterrietan, zer-nolako mugimendua dago? Hurrengo belaunaldiei begira zein da sumatzen duzuen joera?

Bat-bateko taldeak eskualde osoan daude: Balmasedan, Gordexolan... helduen aldetik agian zailagoa da hastea, baina gazteek ikastetxeetan eskolak jasotzen dituztenean, animatu eta errazagoa egiten zaie: batez ere lagun bat hastea nahikoa izaten da besteak atzetik etortzeko.

### Urtean zehar bertsolaritzari loturik ba al duzue sustraitutako jaialdirik?

Bai, maiatzaren bukaera aldera egiten dugu saioa antzokian: beti izaten da bertso eskolako kide bat kantuan eta harekin batera Euskal Herri osoko punta-puntako bertsolariak ekartzen ditugu. Bertso poteoa egiten ere hasi gara hileko bigarren ostiraletan eta erantzun ona jaso dugu.

### Bertsogintzak arnagune modura ere eginkizun handia du zuenean.

Ohiturak askotan gaztelaniara eramaten gaituelako, euskaraz mugitu nahi duenarentzat, euskara ikasten ari direnarentzat, euskaraz bizi nahi duenarentzat bidea ematen du bertsogintzak. Zentzu horretan, oso garrantzitsua da guretzat Bertsolari Txapelketa Nagusiko saio bat Zallan izatea, herria gune euskaldun bezala ere ezagutarazteko. Jendea erakartzea beti da aberasgarria eta haiek Zalla ezagutzea.



bertsozale.eus

HEMEN  
**VERSO  
BERTSO**  
ESATEN  
DUGU



HEMEN  
**KAFARI  
BAQUÉ**  
ESATEN  
DIOGU  
BAQUÉ  
CAFÉ

# ZUMAIA

Urriak 8, 17:00, Aitzuri pilotalekua



## Arkaitz Oiartzabal Agirre “Xamoa” (Oiartzun, 1985)

Etxean aita, osaba eta lehengusua bertsolariak ditu eta haien eraginez bertsozaletu zen. Xenpelar Bertso Eskolan ekin zion bertso ibilbideari eta egun Oiartzungoan ere ari da. Bigarren aldiz hartuko du parte Txapelketan.



## Asier Otamendi Alkorta (Urretxu, 1971)

19 urterekin Gasteizera joan eta han bertsozaletu zen. 1994an egin zuen lehen plaza, Legutien. Arabako Bertsolari Txapelketan lau aldiz izan da txapeldun. Bosgarren parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Ibon Ajuriagojeasko Garmendia (Gernika-Lumo, 1977)

Txiki-txikitatik bertso giroan murgilduta ibili da. 2009. urtean hartu zuen parte lehen aldiz Bertsolari Txapelketa Nagusian eta aurtengoa bigarren parte hartzea izango da.



## Miren Artetxe Sarasola (Hendaia, 1985)

Aitaren eta aitonaren eraginez eta Hitzetik Hortzera ikusita bertsozaletu zen. Xenpelar eta Orixe sariketak irabazi ditu. Oiartzun, Bartzelona eta Hendaia bertso eskoletan aritu da. Hirugarrenoz kantatuko du Txapelketa Nagusian.



## Nahikari Gabilondo Mendizabal (Zarautz, 1978)

Hamaika urterekin hasi zen Zarauzko Etxebeltz bertso eskolan. Hamalau urte zituela ekin zion bat-bateko bertso gintzari. Motxian bertso eskolako kidea da. Bigarren aldia du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Nerea Ibarzabal Salegi (Markina-Xemein, 1994)

Hamabi urterekin hasi zen bertsoan, eta orduz geroztik eskolarteko hainbat txapelketatan eta gazteen sariketatan kantatu du. Lea-Artibaiko txapelduna izan zen 2014an. Lehen parte hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian.

## GAUR BILDUTAKOA, BIHAR DENON ESKURA

**Garai bateko bertsoaldi ezagunak gaurdaino heltzeko, ezinbestekoa izan da horiek jaso zituzten bertso biltzaileen jarduna. Egun zeregin horretan dabilta, besteak beste, Joanito Dorronsoro, Xabier Azkue eta Maialen Velarde, Zumaian.**

Xenpelar Dokumentazio Zentroak urteetan bildutako bertsoaldiak gordetzen ditu bere baitan, dela argazki, ikus-entzunezko eta audio forman. Bilketa lanerako borondatezko lagunen sare zabala du dokumentazio zentroak; Zumaia da horretan eredueta bat.

Joanito Dorronsoro aitzindari da bilketa lanetan. Ikastolak sortu berriak zirela, euskal kultura kutsatu eta bertsoalaritza zabaldu beharra sentitu zuen eta horretantxe murgildu zen buru- belarri 1980 urte inguruan. “Antonio Zavala jesuita gaztea lan eskerga egiten ari zen material bilketan. Lan hura aberastu eta umeen eskura erabilgarri izan zedin egokitzeari ekin genion”, dio Dorronsorok. Xabier Azkuek zein Maialen Velardek Joanitoren gandik jasotako eredu jarraitu dute.

Bildutako materiala Xenpelar Dokumentazio Zentrori bidaltzen dute eta hirurak bat datoz honelako dokumentazio zentro bat izatearen garrantzia aipatzean. “Kultura transmitituko baldin bada, bildu eta jendearen eskura jarri behar da. Bertsoalaritzak eta herri honek arnasa hartu eta aurrera egingo badute, behar-beharrezkoak dituzte Xenpelar Dokumentazio Zentroa bezalako bilgune eguneratuak”, arrazoitu du Dorronsorok. “Jasotako

datu horietara jotzen dugu bertso eskoletako materiala prestatzeko, hurrengo saioetako gauzak ez errepikatzeko, atzera begirakoa egin behar dugunerako...”, gehitu du Velardek.



Dokumentazio zentro bizi eta dinamikoa izan dadin, ordea, bazka eman behar zaio: “Bertsozale Elkarteak apustu handia egin zuen Xenpelar abiarazteko eta horri esker, ikerketak egiteko material ezin hobea dago denon eskura. Elikatzen jarraitzeko, ordea, funtsezkoa da herriz herri materiala bilduko duten bertsozaleen sare on bat edukitzea”, nabarmendu du Azkuek.

Zure herrian bildutako bertso saioak dituzu? Bertsoalaritzaren datu basean denon eskura jarri nahi dituzu? Jarri harremanetan Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin:

[xenpelar@bertsozale.eus](mailto:xenpelar@bertsozale.eus) | +34 943 69 42 77

Neurri eta doinu guztiak

kultur atelier <sup>15</sup>

komunikazioa · agencia de comunicación

T: 943 218899 [www.kulturatelier.eus](http://www.kulturatelier.eus)

# TOLOSA

Urriak 14, 17:00, Beotibar pilotalekua

24



## Beñat Lizaso Alberdi (Azpeitia, 1982)

Etetik datorkio bertsozaletasuna eta ikastolako bertso eskolan egin zituen lehen urratsak. Lizardi sariketa irabazi zuen 2005ean. Hirugarren aldiz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Eneko Lazkoz Martinez (Etxarri-Aranatz, 1983)

14 urterekin hasi zen Etxarriko bertso eskolan. 2004an lehen aldiz hartu zuen parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Gaur egun Lekunberriko eta Etxarriko bertso eskoletako kidea da. Estreinakoz hartuko du parte Txapelketa Nagusian.



## Etxahun Lekue Etxebarria (Larrabetzu, 1979)

Etxeko giroaren eraginez bertsozaletu zen eta hamar urte zituela hasi zen bertso eskolan. Bizkaiko txapelduna da eta Larrabetzuko Itallen bertso eskolako kidea. Laugarrenoz kantatuko du Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Jon Maia Soria (Urretxu, 1972)

Bertsoarekin lehen harremana eskolan izan zuen eta Zumaiaiko bertso eskolan trebatu zen. Xenpelar sariketa irabazi du bitan. Bertsolari Txapelketa Nagusian zazpigarren parte hartzea du, eta lautan kantatu du finalean.



## Maddalen Arzallus Antia (Hendaia, 1990)

Etxeko giroan bertsozaletu zen txikitatik eta bederatzi urterekin hasi zen Hendaiaiko bertso eskolan. Etenaldi baten ondoren, 2014ko Xilaba txapelketan ekin zion berrirori. Bigarrenoz hartuko du parte Bertsolari Txapelketa Nagusian.



## Xabat Gallettebeitia Abaroa (Lekeitio, 1986)

Txikitik ikastolan hasi zen bertsoan. Plazatik Gaztetxera eta Berritxu sariketarik irabazi ditu. Markina-Xemeingo eta Lekeitio Poto bertso eskoletako kidea da gaur egun. Lehenengoz hartuko du parte Txapelketa Nagusian.



## (H)ARI NAIZELA, (H)ARI NAIZELA...

Pello Errotaren hitzak bere eginda, Tolosaldeko Atarian irratsaioa aurkezten dihardu Imanol Artola Felixek. FMaren 107.6an entzun daiteke Tolosaldean eta nonahi egonda [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus) webgunean.

Tolosaldeko Atariaren eta Harituz bertso eskolaren ekimenez eta Bertsozale Elkartearen laguntzaz abiatu zen 2016 urtearen hasieran *(H)ari naizela* irratsaioa. 2015eko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari jarraipen estua egin zion Atariak, eta haren ondotik bertsolaritzari eskainitako tartea mantendu eta sendotu du hedabideak *(H)ari naizela* saioarekin.

“Eskualdean baziren behar eta, era berean, aukera batzuk eta lehenak asetzen saiatu gara, bigarrenak baliatuz” azaldu du saioaren aurkezle eta Harituz bertso eskolako kide den Imanol Artola Felixek.

Uda aurretik 70 atal bete ditu saioak; larunbat eguerdietan izaten da entzungai FMaren 107.6an eta [www.ataria.eus](http://www.ataria.eus) webgunean. Gerora, saioa atarira sareratzten da eta asteazken iluntzean ere errepikatzen da irratian.

Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin duten hitzarmenaren bidez zenbait bertsoaldi bertatik zerbitzaten bazaizkie ere, Harituz bertso eskolako kideek egiten duten bilketa baliatzen du bereziki irratsaioak. Izan ere, eskualdeko bertsogintzan jarria du arreta: “Eskualdeko bertsolariei eman

nahi zaie ahotsa, normalean entzungo ez liratekeen horiei ere lekua emanez” azaldu du Artolak. Bertsoak garrantzia handia duen arren, bertsozalea izaten da gidari; astero gonbidatzen



da eskualdeko bertsozaleren bat eta solasaldi hori izaten du saioak ardatz: “Jendea hona etorrita eroso egon ohi da. Zaila izaten dena da gonbidatzeko garaian jendeari zer esana baduela ulertaraztea”.

Udazkenean ere, jakina, Tolosaldeko Atariak gertutik segituko du Bertsolari Txapelketa Nagusian gertatzen den guztia.



# alki

Euskal Herrian  
egindako altzariak

[www.alki.fr](http://www.alki.fr)



### Aitor Mendiluze Gonzalez (Andoain, 1975)

Eskolan izan zuen lehen harremana bertsoekin, gazte-gaztea zela. Hernaniko bertso eskolan aritua da, baita Andoaingoan ere. 1995ean eta 2007an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Seigarren parte hartzea du Txapelketa Nagusian, eta lautan iritsi da finalera.



### Aitor Sarriegi Galparsoro (Beasain, 1976)

Lehen plaza 1989an egin zuen, Seguran. Lizardi eta Osinalde sariketak irabazi ditu. 2011n Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Seigarren aldiz kantatuko du Txapelketa Nagusian, eta bi finaletan hartu du parte.



### Beñat Gaztelumendi Arandia (Añorga, 1987)

Etetik datorkio bertsozaletasuna eta Igeldoko, Hernaniko eta Santutxuko bertso eskoletan aritua da. Lizardi, Abra eta Hernandorena sariak irabazi ditu. 2015eko txapelketa irabazita, egungo Gipuzkoako txapelduna da. Hirugarren aldiz hartuko du parte Txapelketa Nagusian.



### Igor Elortza Aranoa (Durango, 1975)

Umetan ikasi zuen bertsoetan, Kurutziaga ikastolan eta Durangoko bertso eskolan. Bost aldiz irabazi du Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Zazpigarren parte hartzea du Txapelketa Nagusian, eta hiru finaletan kantatu du.



### Maialen Lujanbio Zugasti (Hernani, 1976)

Ikastolako bertso eskolan hasi zen bertsoetan. Hamabost urterekin ekin zion plazaz plazako ibiliari. 2003an Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irabazi zuen. Txapelketa Nagusian bost finaletan kantatu du eta 2009koa irabazi.



### Sustrai Colina Acordarrementeria (Urruña, 1982)


Hendaia bertso eskolan eman zituen lehenengo urratsak eta 1992an egin zuen lehen plaza. Bi aldiz irabazi du Xilaba txapelketa, 2014an eta 2016an. Bosgarren parte-hartzea du Bertsolari Txapelketa Nagusian, eta lau finaletan kantatu du.

Finalean sartuko den bertsolaria



### Amets Arzallus Antia (Hendaia, 1983)

Etxean bertso giroa zegoen, eta txikitatik hasi zen kantuan. Lau aldiz irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta hirutan Xilaba. 2013ko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazita, Euskal Herriko txapelduna da. Bosgarren parte-hartzea du Txapelketa Nagusian.



**Lidergo teknologikoa ingurua  
garatzeko eta herritarraren ongizaterako**

## BASTIDA

### Urriak 28, 17:00, Udal kiroldegia

Arabar Errioxako Txandrio bertso eskola da bertsolaritzaren erreferente nagusia.

Joan zen ikasturtean Bertsolaritza irakaskuntzan programa jaso zuten Bastidan.

Azken bi urteotan sei saio antolatu dituzte Bastidan: bertso poteoak, bertso saio musikatuak, sariketak...

Bastidako grabazio bat dago jaso Bertsolaritzaren Datu Basean: Arabako 2003ko Bertsolari Txapelketako 2. kanporaketa.

## IRUN

### Azaroak 1, 17:00, Artaleku kiroldegia

2007tik Irunabar Irungo Bertsoaren Bilgunea dago martxan.

2016-2017 ikasturtean Irungo sei ikastetxetan izan zen *Bertsolaritza irakaskuntza* egitasmoa, eta guztira 559 ikaslerengana iritsi zen.

28 saio antolatu zituzten Irunen 2016. urtean.

76 grabazio daude jasoak BDBn. Zaharrena 1988. urtekoa da, Kilometroak jaia bertan egin zenekoa. Doinutegiko lau doinu daude Irunen jasoak.

## MAULE-LEXTARRE

### Azaroak 4, 17:00, Ororena Jai Alai

2016an bi saio antolatu zituzten Maule-Lexarren.

Maulen grabatutako hiru grabazio daude bilduak BDBn. Doinutegiko bi doinu jaso dira Maule-Lexarren.

## DURANGO

### Azaroak 12, 17:00, Landako gunea

19 ikasle ari ziren joan zen ikasturtean Durangaldeko Bertso Eskolan bertsolaritza lantzen.

Durangoako lau ikastetxetan jasotzen dute *Bertsolaritza irakaskuntza* programa. 339 ikaslek landu zuten bertsolaritza joan zen ikasturtean.

Gazta loreduna,  
larrez larre, errimaz errima

@artzai\_gazta   facebook.com/artzaigazta  
www.artzai-gazta.eus



Fondo Europeo Agrícola  
de Desarrollo Rural



2016an lau bertso saio antolatu zituzten Durangon. Durangon grabatutako 137 grabazio daude bilduak BDBn. Zaharrena 1979an jasotako bertso jarrien saio bat da, Amuriza, Azpillaga eta Lopategirekin. Doinutegiko 37 doinu jaso dira Durangon.

## AMURRIO

### Azaroak 19, 17:00, Bañueta kiroldedia

Amurrioko Bertso Eskolan helduentzako talde bat dago. Herriko bost ikastetxek hartzen dute parte *Bertsolaritza irakaskuntzan* egitasmoan.

2016an 9 bertso saio antolatu zituzten Amurrion.

BDBn 28 grabazio daude bilduak Amurrion; zaharrena 1998ko Araba eta Bizkaiko txapelketakoa da.

## DONIBANE LOHIZUNE

### Azaroak 26, 17:00, Jai Alai

2016ean 8 bertso saio antolatu zituzten herrian.

Donibane Lohizuneko ikastolako ikasleek lantzen dute bertsolaritza geletan. *Bertsolaritza irakaskuntzan* egitasmoaren barruan.

17 grabazio daude bilduak Donibane Lohizunen Bertsolaritzaren Datu Basean. Zaharrena 1975ean Uztapideri egin zitzaion omenaldikoa da.

Doinutegiko 2 doinu jaso dira Donibane Lohizunen.

## IRUÑEA

### Abenduak 2, 17:00, Anaitasuna kiroldedia

Joan zen ikasturtean bederatzi talde zeuden Iruñeko bertso eskoletan.

Azken ikasturtean Iruñeko bederatzi ikastetxek hartu zuten parte *Bertsolaritza irakaskuntzan* programan. 751 ikaslek landu zuten bertsolaritza ikasgelan.

2016ean 43 bertso saio antolatu zituzten Iruñean.

Iruñeko 254 grabazio daude bilduak BDBn. Zaharrena 1977an Gaiarre antzokian egin zen bertso jaialdia batekoa da.

Doinutegiko doinu bat jaso da Iruñean.



ABOVE & BEYOND

# eurolan



Eurolan;  
bertsoa bidelagun



Finala babesten du:



## LAUGARREN ALDIZ, BARAKALDON IZANGO DA FINALA

14.000 lagunentzat egokituko da Bizkaia Arena

### ORDUTEGIA

09:00 Ateak ireki.

11:00 Goizeko saioa. 14:00ak aldera amaitzea aurreikusten da.

16:30 Arratsaldeko saioa. 20:30ak aldera amaitzea aurreikusten da.

**B! BIZKAIA  
E! ARENA  
C!**

### Kontuan izateko zenbait ohar

1. Sarrerak ez dira zenbakiuak.
2. Goizeko saioa amaituta, Bizkaia Arena hustu egingo da. (Antolakuntza ez da entzuleak lekua gordetzeko utz ditzakeen objektu pertsonalen arduradun egingo).
3. Hartzaindegi zerbitzua egongo da. Aurrez izena eman behar da txapelketanagusia@bertsozale.eus-en.
4. Ezinduek izan ditzaketen behar bereziei erantzuteko, finala baino lehen antolakuntzarekin harremanetan jartzea eskertuko genuke txapelketanagusia@bertsozale.eus helbide elektronikoan.

### GARRAIOA

Garraio publikoa edo antolakuntzak jarritako autobusak erabiltzea gomendatzen dizugu.

### Autobusak

Finalera autobusez joateko aukera eman nahi dizu Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Aizpurua Autobusak taldearekin lankidetzan. Abiapuntua edozein izanda ere, 14 euro balio du autobus txartelak.

- [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian kontsultatu abiapuntu guztiak.
- [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian autobus txartelak erosteko aukera izango duzu.
- Sarrerak berak adieraziko dizu zein geltokitan hartu behar duzun autobusa.
- Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak abenduaren 12an jakinaraziko dizu autobus bakoitzaren ibilbidea eta ordutegia. Zure autobusa zein ordutan abiatuko den jakiteko:
  - [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)
  - Erreserba egin den posta elektronikoan jasoko duzu mezua.



### Trena eta metroa

- ANSIO geltokia da gertuen dagoen metro geltokia, 2. zonakoa.
- Metroko erabiltzaile bazara, BECeko parkinean tarifa murriztua izango duzu: 0,70 euro eguneko.
- Metroa edo trena erabiltzeko txartel arrunta edo BARIK txartela erabili dezakezu (banakako edo taldeko txartela).
- [www.metrobilbao.eus](http://www.metrobilbao.eus) eta [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus) helbideetan dituzu ordutegia eta prezioak.
- Loturak:  
Donostia eta Durangotik trenean bazatoz, Zazpikaleak/Casco Viejo geltokian hartu dezakezu metroa BECera. Txorierri ingurutik trenean bazatoz, Zazpikaleak/Casco Viejo geltokian hartu dezakezu metroa BECera.

Bermeo/Gernika ingurutik trenean bazatuz, Bolueta geltokian hartu dezakezu metroa BECera. San Mames metro geltokiak lotura egiten du Renfe trenarekin eta Termibus autobus geltokiarekin. Orduña, Kaltzada eta Karrantzatic trenean bazatuz, Abando geltokian hartu dezakezu metroa BECera.

## BAZKARIA

Bizkaia Arenatik berrogeita hamar metrora izango duzu bazkaltzeko lekua. Bertan, bi aukera:

1. Mahaiak eta aulkiak izango dira etxetik eramandakoak jan ahal izateko.
2. Iruña Catering enpresak eskainitako bazkaria, 18 euroan.  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian duzu bazkari txartela erosteko aukera.



Aurten ordu erdi bat gehiago izango duzu bazkaltzeko. Hala ere, mahaiak osatu ahala zerbitzatuko da, gehiago ez berandutzeko.

Menua:

Babarrunak txorizoarekin. Oilasko izterra patata, txanpinoi eta entsaladarekin. Hostopila izozkiarekin. Kafea edo infusioak. Ura eta Ardoa.

3.- Tabernak irekita egongo dira egun osoan. Kafea, garagardoa, freskagarriak, pintxoak...

- BEC iparraldeko sarreran kokatuta dagoen Altzairu kafetegia.
- Bizkaia Arenan, saioa izango den lekuan (4. pabiloia).
- Bazkaltzeko lekuan (6. pabiloia).



## Finalean boluntario aritu nahi al duzu?

Bertsozale Elkartek laguntza behar du finalean.

Egun osoko lana izango da: goizeko lehen ordutik iluntzera.

Boluntario lanetan aritu nahiko bazenu, jarri gurekin harremanetan urriaren 29a baino lehen.

- Bete ezazu [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean aurkituko duzun formularioa.
- Deitu +34 946 81 27 11 zenbakira.

Bertsozale Elkartek hauxe eskaintzen dizu:

- Istripu aseguruua.
- Bazkaria.

## ZALEAREN SOSLAIARI NEURRIA HARTZEN

**Txapelketa Nagusiko saioetan inkestatzaileak ibiliko dira jendartean. Ikerketa soziologikoa gauzatzeko, eskertuko ditugu zure erantzunak.**

Karpeta eta boligrafoa eskuan eta galdetzaile gisa identifikatzen duen txartela paparrean, agian hurbilduko zaizu lagunen bat Bertsolari Txapelketa Nagusiko saioen batean. Txapelketaren inguruan espresuki eta bertso gintzaren inguruan oro har gauzatzen ari garen azterketa soziologikorako diseinatutako galdetegia egiteko prest agertuko gara; 10 minutu baino ez dizkizugu kenduko, eta zure erantzunak oso emankorrak gertatuko zaizkigu. Izugarri estimatuko dugu zure borondatea!

1994an eta 2006an egin ziren eite bereko aurreko ikerketak. Hamar urteko maiztasunez egin ohi da eta aurtengo txapelketan egokitu da hori. Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUk gauzatu dute ikerketa. Azterketaren bidez txapelketan dabilen bertsozalea nolakoa den jakin nahi dugu, zer pentsatzen duen txapelketari buruz eta oro har bertsoaritzari buruz; informazio horri esker, testuinguruari zein zaleari neurria hartu eta Elkartearen hurrengo pausoak egokitu ahal izango ditugu.

## GIROTZE EKITALDIAK


**Udazkenean ez zara aspertuko. Herriz herri ekitaldi andana antolatu dute bertso eskolek, udalek eta herrietako elkarteek.**

Hona hemen Baigorritik Barakaldora txapelketako saioez gain izango diren ekitaldietako batzuk, baina izango dira gehiago.

Irailaren 15ean, Zallan, bertso poteoa antolatu dute Igor Elortza eta Igor Uzelairekin.

Irailaren 30ean, Segurako saioarekin batera, egun osoz, Bertso Eskolen Eguna egingo da. Biharamunean, Leitizan, Peru-Harrira bisita gidatua Iñaki Perurenarekin. Ondoren, *Harria. Maitasun istorioa* emanaldia.

Urriaren 27an eta 28an, Bastidan, Euskal Kultur Astea ospatuko dute saioaren bueltan. Hainbat ekitaldi egongo dira eta horien artean, saio egunean bertan, herriko upategietara saio gidatuak.



Azaroan, Bertso Udalekuen 20. urteurrena ospatzeko, bazkaria egingo da saio baten aurretik.

Abenduan, Iruñeko saioaren aurretik, girotze ekitaldi bat izango da Anaitasuna Peñarekin elkartanean.

Girotze ekitaldi gehiago izango dira Txapelketan zehar. Horien berri zehatza [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean jasoko duzue.




Saioz saio,  
geltokiz geltoki.  
Ansiora metroan

Zona 3 Gunnea

Zona 2 Gunnea

Zona 1 Gunnea

Zona 2 Gunnea



facebook.com/metrobilbao  
metrobilbao.eus



metro bilbao

## JARRAITU BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA NONAHI!

**Bertsolari Txapelketa Nagusia bertatik bertara ikusteko aukerarik ez duenak, bide ugari izango ditu edonondik jarraitzeko.**

34

Asko dira urtean zehar Bertsozale Elkartek gauzatzen dituen egitasmoak. Horien guztien inguruko informazioa zabaldu ohi du Bertsozale Elkartearen atariak: [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus).

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren inguruko xehetasun guztiak ere bertan bilduko ditugu, jakina. Txapelketa Nagusiak berezko atala izango du Bertsozale Elkartearen webgunearen barruan; albisteak, egutegia, argazkiak, puntuazioak... egunetik egunera txapelketa segitu ahal izateko.

Horrez gain, bertsogintza eta bertsolaritza hainbat

ikuspuntutatik aztertuko dituzten adituen iritziak ere bilduko ditu webguneak; astero argitaratuko ditugu artikuluak.

Ohi bezala, sare sozialetan ere txapelketaren berri zabalduko dugu, #BTN17 traola erabiliz.

[Bertsoa.eus](http://Bertsoa.eus) atari berrituak jarraipen handia egingo dio txapelketari. Saio guztiak eskainiko ditugu sareko plazan, zuzenean; eta biharamunean, bertsoaldi hautaketa jarriko dugu eskura. Gainera, bertsolarien iritziak jasoko ditugu saioaren aurretik, eta ondotik ere bilduko

# Bertsozale jantzientzat, Puntutan

Bertsolari  
Txapelketa  
Nagusiko  
arropa denda  
ofiziala



ditugu haien hitzak. Saioen analisisiei ere tartea egingo diegu.

Finalurrekoak eta finala zuzenean telebistan jarraitzeko parada ere izango dute bertsozaleek, Bertsozale Elkartearen eta ETBren elkarlanaren eskutik. ETB4n eskainiko ditugu finalurrekoak eta ETB1en izango da ikusgai eta entzungai finala, Aitzol Barandiaranen eta Uxue Alberdiren iruzkinekin.

#### Bertsolaritza saio berria astelehenean

Irailaren 24an hasiko da Bertsozale Elkarteak ekoitzi eta ETB1en eskaintzen den Hitzetik Hortzera bertsolaritza programa betetera. Saiotako ale onenak eskainiko ditugu, igandero, 15:00etatik aurrera.

Horrez gain, astelehen gaueko tartea hartuko du bertsolaritzak ETB1en. Txapelketako giro eta bertso

onenekin batera, gaur egungo bertsozaleen gakoak ezagutuko ditugu. Urriaren 30ean hasiko da, finalurrekoekin batera, telebista saio berria.

#### Gogoan izan...

Egunerokoan:

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) eta  
[www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus)

Zuzenekoak:

[www.bertsoa.eus](http://www.bertsoa.eus)  
ETB4 (finalurrekoak) + ETB1 (finala)

Igandean: Hitzetik Hortzera ETB1en

Astelehenean: Telebista saio berria ETB1en



# SAIIZAR

Sagardoa · Sidra Natural

## HEDABIDE LAGUNTZAILEAK, EZINBESTEKO LAGUNTZAILEAK

Bertsozale Elkarreak bideratuko duen ikus-entzunezko eta idatzizko hedapenez gain, Euskal Herriko komunikabide ugariarekin dugun elkarlanari esker, Bertsolari Txapelketa Nagusiak are oihartzun handiagoa izango du.

Bestalde, Euskal Herri osoko zein nazioarteko hedabideak izango ditugu Txapelketa Nagusia segitzen, tokian tokikoak eta lurralde osoari begirakoak, prentsa, telebista, irrati zein webguneak.

Haietako askorekin elkarlan hitzarmenak egin ditugu, Bertsolari Txapelketa Nagusia are gehiago zabaltzeko. Komunikabideekin elkarlana ezinbestekoa zaigu gure egitasmoa ezagutarazteko, eta gure esker ona adierazi nahi diegu guztiei.



**berria**

**EL DIARIO VASCO**

**Gipuzkoa**  
Zer irakurri, hura izan

**Deia**

**Diario**

**Noticias**  
Eres lo que lees

**argia**

**BERTSOLARI**

**G**  
gaztezulo

**HITZA**

**INFO**  
IRRATIA

**Hamaika**

**ALEA**

**AIALDEA**  
GAZE

**el**

**goiena**

**lotoaldeko ataria**

**EUSKAL IRRATIAK**


**BIZKAIA**  
irratia

**BI-96.0-FM**  
Bilbo Hiria Irratia  
bilbohiria.eus

**hala bedi**

**euskalerrairratia**

**ARRATIA**



+info:  
[www.sagardotegiak.com](http://www.sagardotegiak.com)  
[www.sagardoarenlurraldea.com](http://www.sagardoarenlurraldea.com)

[www.sansebastianregion.com](http://www.sansebastianregion.com)



## “SORTZAILEEI BALIABIDEAK JARTZEA DA LANKUREN EGINBEHAR NAGUSIETAKOA”

Marta Agirrezabala Lanku Kultur Zerbitzuetako koordinatzailea da. Nagusiki bertso saioen antolakuntzan aritzen da, baina kultur emanaldien antolakuntzan eta argitaletxe gisa ere badihardu egun.

**Bertsozale Elkartek 2003an sortu zuen Lanku kultur enpresa. Orduz geroztik bide oparoa egin duzue. Zeintzuk dira gaur egun Lankuk dituen lan ildo nagusiak?**

Urteetako lanari esker erreferente bihurtu da kultur munduan eta, bereziki, bertsolaritzan. Ildo nagusia bertso saioen kontratazioena da; hala, urtean 300 saiotik gora bideratzen ditugu. Gainera, bertso saioez gain, beste kultur sorkuntzekin uztarturiko emanaldi bereziak ere eskaintzen ditugu. Bestetik, ekoizpen lanek pisu handia hartu dute Lankuren jardunean: Bertso Eguna, herrialdeetako bertsolari txapelketak eta Bertsolari Txapelketa Nagusiaren ekoizpen lanaz arduratzen gara, besteak beste. Azkenik, argitaletxe gisa ere badihardugu.

**Esaterako, zeintzuk dira bertso saio bat antolatu nahi duen bertsozaleari Lankuk eskaintzen dizkion zerbitzuak?**

Bertsolariak kontratatu, kartelak egin, oholtza prestatu, soinu-zapenaz arduratu... zerbitzu osoa eskaintzen du Lankuk. Beraz, bertso saio bat antolatu nahi duen edozein antolatzailek nahikoa du Lankura deitu edo e-maila bidaltzea.


**Sortzaileekin lan egiten duzue eta haiei begira aurten lehen Lanku beka jarri duzue martxan. Zein da beka horren helburua?**

Sortzaileei beren sorkuntza lanerako baliabideak jartzea da Lankuren eginbehar nagusienetakoa. Horrela, sortzaileen eta Lankuren arteko elkarlana sustatzea eta sendotzea du helburu batetik eta, bestetik, bertsolaritza muinean duten sorkuntza lanak bultzatzea.

**Kultur enpresa da Lanku. Bertso mundutik kanpo, kulturgintzako beste esparruetan ere zein zerbitzu eskaintzen ditu?**

Lankuren helburu nagusienetako bat bertsolaritza sustatzea bada ere, Mintzola Ahozko Lantegiaren babesean, ahozko beste adierazpideei ere lekua egiten diegu gure eskaintzan: besteak beste, ipuingintzari, antzerkigintzari eta kantagintzari. Hala, kulturgintzako ekoizpen lanetan ari da Lanku urratsak egiten.





*Landu sormena eta barruan  
dadukazuna atera  
edo hurbildu bestek sortuan  
partaidea izatera  
txapelketaren urtea denez  
zabalik dezu aukera  
sortu ta bizi euskal kultura  
euskaltelekin batera.*

*Xebastian Lizaso*

**EUSKALTEL**  
**ETA KULTURA**



## MINTZOLA AHOZKO LANTEGIAN, MAKINERIA ABIADA BIZIAN

2009tik, eta beste zenbait erakunderekin elkarlanean, bertsolaritzaren ikerketa sustatzen, euskarazko beste ahozko kultur sorkuntzekin sinergiak batzen eta munduko bat-bateko kantu inprobisatuekin zubiak eraikitzen ari da Mintzola.



### Zer da?

Mintzola, bertsolaritzatik abiatuta, ahozko kultur sorkuntzaren arloa sustatzeko proiektua da.

### Nork?

Bertsozale Elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kutxarekin, UPV/EHUrekin eta Amasa-Villabonako Udalarekin batera.

### Non eta noiz?

Amasa-Villabonako Subijana etxean dago kokatua, 2009an sortu zenetik.

Ahoa Bete Hots  
Kulturarteak Mapa  
Ikerketa kontratuak  
Liburutegi digitala  
UNibertsoan  
Europa bat-batean  
Mundu bat ahoz aho  
BDB datu-basea  
Ikerketa soziologikoa  
UPV/EHU Uda Ikastaroak  
Ikerketa proiektu sariak  
Ahots Baten  
Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak  
Bertsoa Unibertsitatean

Bertsolaritzaren  
Ikertegia

15

ikerketa daude  
martxan,  
bertsolaritzari loturik

Ahozko  
Elkargunea

11

ekimen antolatzen  
ditugu antzerkia,  
bertsoa eta literatura  
uztartuz

Kulturarteak

97

bat-bateko kantu  
inprobisaturen  
inguruko informazioa  
bildu dugu Kulturarteak  
Mapan

Xenpelar  
Dokumentazio  
Zentroa

500

erreferentzia baino  
gehiago topa daitezke  
bertsolaritzaren  
liburutegi digitalean



## BERTSOLARITZAREN IKERKETA SASOI ONEAN DA

Jakintza alor ezberdinetatik interesgarri jo dute hainbat ikertzailek bertsoalaritza aztertzea. Horretan hasi nahiko bazenu, lehen urratsa egiteko aukera duzu orain.

Bertsolaritzaren ikertegiak berebiziko garrantzia du Mintzola Ahozko Lantegian eta berau sortu zenetik, unibertsitateekin elkarlanean, bertsoalaritza aztergai duten ikerketa aleak ereiten dihardu. Urteotan ale horiek ureztatu, kimatu eta zaindu egin dira eta fruitu ederrak eman dituzte. Uzta emankor horren ondorio dira egun martxan dauden 15 ikerketa.



2013tik Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUko Euskara eta Ikerkuntza Errektoreordetzek zein Mikel Laboa Katedrak ikerketa kontratuen deialdia egin izan dute bertsoalaritzaren ikerketari bultzada emate aldera.

Handik urtebetera proiektu sarien esleipena jarri zen martxan; master amaierako lanak ahalbidetzen

dituzte sariok, eta hala, gerora ikerketa kontraturako aukera zabaltzen zaie ikertzaileei.

Bestalde, beste hainbat erakundek martxan jarritako diru laguntzei eta begirada bertsoalaritzan jarri duten beste zenbait ikertzailei esker, bertsoalaritzari loturiko ikerketa gehiago ere ekinean direla eta horiei ere aholkularitza eskaintzen zaiela Mintzolatik. Bertsoalaritza ikertzeko heldulekua edozein izanda ere, Xenpelar Dokumentazio Zentroak baliabide ugari eskaintzen dizkie ikertzaileei, erreferentzia, argazki, audio edo bideo forman.

### Ikerketa proiektu sariak ditugu martxan

Uztaillean zabaldu zen epea Mintzola Ahozko Lantegiak eta Mikel Laboa Katedrak banatuko dituzten ikerketa proiektu sarien deialdira aurkezteko, eta urriaren 15ean amaituko da. Xehetasun guztiak [www.mintzola.eus](http://www.mintzola.eus) eta [www.ehu.eus/laboakatedra](http://www.ehu.eus/laboakatedra) webguneetan topatuko dituzu.

### Bertsolaritza aztergai

- Ahots kantatuaren sintesia. Bertsoalaritzarako egokitzapena* :: Xabier Sarasola Aramendia
- Ahozko hizkeraren ezaugarriak bertsoalarien bat-bateko jardunean* :: Eñaut Agirre Goia
- Bertsoaren Agenda. "Agenda setting"ak bertsoalaritzaren diskurtsoan duen eragina* :: Oihana Iguaran Barandiaran
- Bertsoalarien garuna* :: Kepa Paz-Alonso (BCBL)
- Bertsoalaritza eta emakumea* :: Jone Miren Hernandez Garcia
- Bertsoalaritza eta irudia* :: Beñat Romera del Cerro
- Bertsoalaritza eta kazetaritza* :: Antxoka Agirre Maiora
- Bertsoalaritza doinuan sorkuntza automatikoa* :: Izaro Goienetxea Urkizu
- Bertsoalaritzan garatutako umorea(k), genero ikuspegitik* :: Ane Labaka Mayo
- Bertsoalaritzaren transmisioa eta euskararen gune sinbolikoaren sendotzea* :: Miren Artetxe Sarasola
- Bertsoalaritzaren prosodia* :: Ainhoa Aizpurua Insausti
- Bertsozaletasunaren ikerketa soziologikoa* :: Mintzola Ahozko Lantegia - UPV/EHU
- Hizkuntzalaritza konputazionalako teknikak bertsoalaritzan* :: Aitzol Astigarraga Pagoaga
- Oiartzungo bertsoalarien kantaera: analisi musikologiko konparatiboa* :: Itziar Navarro Ibáñez
- Xabier Leteren bertso, olerki eta kanten analisisa* :: Jon Martin Etxebeste

## NEURRI EZBERDINEAN, SINTONIA BEREAN

Ariketa, egitura eta erritmo ezberdinean egiten dute kantuan munduko inprobisatzaileek, baina guztiak kitzikatzen ditu oholtzan bat-batean aritzearen erronkak, aurrean dagoenari beren komunitate edota barruak dituen kezka, iritzi eta aldarrikapenak lau haizetara plazaratzeak. Hori eta askoz gehiago dakigu nazioartean eraiki ditugun zubiei esker.

90eko hamarkadan hasi zen dena. Munduan beste kantuan inprobisatu batzuk bazeudela eta Bertsozale Elkartetik Koldo Tapia Elkarteko orduko ordezkaria eta Andoni Egaña bertsolaria joan ziren Veracruzera, Mexikora, kantuan inprobisatuaren topaketa batera. Handik urte batzuetara antolatu zen antzerako bat etxean: *Ahozko Inprobisazioa Munduan* topaketak gauzatu ziren 2003an, Bertsozale Elkartearen eskutik; jardunaldi akademikoak eta emanaldiak uztartu eta munduko bederatzai adierazpiderako ordezkariak elkartu ziren. Eredu hori jarraituz, *Europa bat-batean* topaketak egin zituen Mintzolakiaz, Donostia 2016ren babesarekin.

Bi topaketa horien artean eta, gerora ere bai, bertsolariak joan dira munduko hainbat txokotara, gurea erakutsi eta, antzeko adierazpiderik badagoen tokietan, eurena jasotzera: Mexiko, Sardinia, Zipre, Herrialde Katalanak... Txapelketa Nagusiak ere horretarako aitzakia eman izan du eta Euskal Herriko ikus-entzuleak ez ezik, nazioartekoak ere izan ditugu oholtzara adi begira. Aurten ere sumatuko duzu bertsozalea den munduko erdal hiztunik saioetan.

Sendoago gune batzuetan eta ahulago besteetan, denek dute bizirauteko grina. Kultur identitatea aldarrikatzeko hitza ere eskaintzen du kantuan inprobisatuak, zenbaitek bere-berea duten hizkuntzan ere kantatuz. Hain ezberdin eta hain berdin. Neurri ezberdinean sortu, baina sintonia berean gaude.

### Mapan kokatuz

Iaz aurkeztu zuen Mintzola Ahozko Lantegiak, Xenpelar Dokumentazio Zentroaren eskutik, Kulturarte Mapa. Munduko kantuan inprobisatuak zerrendatu, deskribatu eta mapan kokatzen dituen datu barea da. Egun, 97 adierazpide ditu bilduta, baina bertsozale eta munduko ikertzaileen eskutik eguneratzen den proiektua da.

Ba al zenekien Groenlandian umorea oinarri duen kantuan inprobisatua badela? Edota Txinako ipar-ekialdean eta Errusiako hegoaldean zabaldutako Nanai hizkuntzan ere Yimakan delako kantuan inprobisatua aritzen direla? Gehiago ezagutu nahi badituzu, hemen duzu aukera: [www.mintzola.eus/kulturarte/mapa](http://www.mintzola.eus/kulturarte/mapa).



# HERRI BAT

**17 HILABETEKO**

**PRESTAKUNTZA**

**43 BERTSOLARI**

**53 EGUN LEHIAN**

**15.000 IKUSLE**

## TXAPEL BAT

**BILBAO EXHIBITION CENTRE  
(2017. 12. 17)**



**Bilbao**

UDALA  
AYUNTAMIENTO

## BERTSOLARI EGUNETIK, TXAPELKETA NAGUSIRA

### Euskaltzaleak elkarteak eta Euskaltzaindiak antolatu zituzten lehenengo zortzi txapelketa nagusiak

1935. urtean hasten da Bertsolari Txapelketa Nagusiaren historia. Urte hartan zein hurrengoan, lehen bi Euskal Herriko txapelketak antolatu zituzten, *Bertsolari Eguna* izenarekin. Lehen Euskaltzaleak eta Euzko Gaztedia elkarteek antolatu zuten eta hogeit bertsolarik eman zuten izena. Saio bakarra jokatu zuten eta Basarrik eraman zuen lehen txapelketa hura.


1936koa, berriz, Euskaltzaleak bazkunak antolatu zuten. Hiru kanporaketa jokatu zituzten eta hamar bertsolari sailkatu ziren Donostiako Victoria Eugenia antzokian jokatu zen finalera. Txirritak eraman zuen txapela eta Uztapidek egin zuen bigarren.

Gerra eta gerraosteko tunel ilun eta luzean bertsolariek han-hemen kantatzen segitu bazuten ere, ez zen txapelketarik antolatzen, harik eta 1958an Euskaltzaindiak txapelketak antolatzeko ardura bere gain hartzea erabaki zuen arte.

#### Euskaltzaindiak antolatuta

Bi urtez Bizkaian, Nafarroan eta Gipuzkoan txapelketak jokatu ziren eta modu horretan 1960an egin zen gerraosteko lehen Bertsolari Txapelketa Nagusia. *Campeonato Mundial de Bertsolaris* zioen orduko kartelak.

Bederatzi bertsolarik hartu zuten parte finalean.



**N-121-A - km 54,5 / 31791 SUNBILLA (Nafarroa)**

**620 950 687 - 636 061 536**

Uztapiderekin lehia estuan, azkenean Basarrik jantzi zuen bere bigarren txapela.

Ondorengo txapelketak antolatzen segitu zuen Euskaltzaindiak, urtero herrialdeetakoak eta bi urtean behin Txapelketa Nagusia. 1962koa Uztapidek irabazi zuen.



Bi urteko maiztasuna laster hautsi zen. Hurrengoa 1965ean jokatu zen. 115 bertsolarik ekin zioten herrialdez herrialde. Uztapidek bigarren txapela irabazi zuen, Lazkao Txikiren aurretik.

1967ko txapelketa aro horretako azkena izango zen. 83 bertsolarik hartu zuten parte. Uztapidek hirugarren txapelketa jarraian irabazi zuen.

Beste etenaldi bat ezagutu zuen Bertsolari Txapelketa Nagusiak, 1980ra arte ez zen berriro

jokatu. Euskaltzaindiak hartu zuen berriro ardura. Urtarrilaren 6an jokatu zen finala eta Xabier Amurizarentzat izan zen txapela.

1982koa izan zen Euskaltzaindiak antolatu zuen azkenengoa. Kanporaketak jokatu ostean, abenduaren 20an Donostiako Balda pilotalekuan izan zen finala, eta zortzi bertsolarik hartu zuten parte. Xabier Amurizaren bigarren txapela izan zen.

Txapelketa horren ostean, bertsolarien eta Euskaltzaindiaren artean hainbat desadostasun azaleratu ziren eta berez 1984an egitekoa zen txapelketa ez zen egin. Azkenean Euskaltzaindiak Txapelketa Nagusia antolatzeari uko egin zion eta bertsolariek beraiek, bertsozaleen laguntzaz, 1985ekoa antolatzeari ekin zioten. Besteak beste, ardura hori hartzeak Bertsolarien Lagunak elkartearen sorrera ekarriko zuen, gerora Bertsozale Elkartea bihurtuko zena.

**MINTZA  
LAGUNA**

HARTU,  
EMAN,  
ERAGIN.

**EMAN IZENA!**  
[www.mintzalaguna.eus](http://www.mintzalaguna.eus)

euskaltzaleen  
topagunea

ELISKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## BDBn bertsoaritzaren inguruko erantzun guztiak aurkituko dituzu!

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren harira, bertsoaritzaren inguruan dakizuna egiaztatzeko, lehiaketa bat proposatu nahi dizugu. Erraz-erraza da: hemen ageri diren galderei ongi eta zuzen erantzutea da kontua.

Eta lana are gehiago errazteko, bertsoaritzaren inguruko informazio guztia Bertsolaritzaren Datu Basean aurkituko duzu.

Xenpelar Dokumentazio Zentroaren edukiak gizarteratzeko tresna da Bertsolaritzaren Datu Basea (BDB). 2011ko ekainean jarri zen Interneten, eta etengabe garatzen ari da, bai moduluz bai fitxa kopuruz. Biltegi eta informazio iturri emankorra da, teknologia berriei esker bertsozale guztien eskura dagoena [bdb.bertsozale.eus](http://bdb.bertsozale.eus) helbidean.

Laguntza gisa, "Bilaketak nola egin" atalean datuak bilatzeko azalpen orokorrak topatuko dituzu (<http://bdb.bertsozale.eus/info/11-informazio-orokorra-bilaketa-nola-egin>).

Lehiaketa denez, saria ere bada. Bidali erantzunak eta datuak (izen-abizenak, e-posta eta telefono zenbakia) [txapelketanagusia@bertsozale.eus](mailto:txapelketanagusia@bertsozale.eus) helbidera, azaroaren 29a baino lehen. Ongi erantzuten duten guztien artean txapelketako finalerako 3 sarrera bikoitz eta Irrisarri Land abentura parkean 4 pertsonentzako egonaldi bat zozkatuko ditugu.

Erantzunak zein sarituen izenak [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunean argitaratuko ditugu abendu hasieran.

Latinezko "Salve Regina" kantu gregoriano ezagunean oinarritu zen Amuriza hamarreko handira sentimenduzko doinu berri bat moldatzeko. Zein txapelketatan plazaratu zuen?

Andoni Egañak txapelketan kantatu duen azken bertsoa 2009an kantatutako agurra izan zen, Jon Maiak kantu ezagun batetik birmoldatutako doinuan kantatu ere. Norena da jatorrizko doinua?

Txapelketa Nagusiko zein finaletan izan da baxuena adinaren batazbestekoa?

Txapeldun gazteena Iñaki Eizmendi "Basarri" da, 21 urterekin. Eta bigarren txapeldun gazteena?

Egañak jokatu ditu final gehien. Eta nor da/dira hurrengo/hurrengoak?

Azkena argitaratutako epai irizpideak 2013koak dira. Bertan zehazten da bertsolariak kantuan hasteko behar duen denbora. Esaterako, zenbat denbora dago puntuari erantzuteko?

Hirurogeiko hamarkadako txapelketak epaitzen, politikariaz gain musikari eta kantari izan zen baten izena agertzen zaigu. Nor da?

Txapelketa Nagusiarekin lotuta, zer da Mañukorta, Uxue Alberdi, Euzkitze, Unai Agirre, Amets Arzallus, Igor Elortza, Jokin Uranga eta Iñaki Zelaiak partekatzen dutena?

Zenbat bertso puntuagarri kantatu behar izan zituen azken finalean txapeldunorde geratu zen Maialen Lujanbiok?

Azken txapelketan nork ekin zion saioari honela hasten den agurrarekin: "Lehenik Markina gero Gernika..."

# Getariako Txakolina



DENOMINACION DE ORIGEN



## FINAL LAURDENAK

BAIGORRI Irailak 23	Puntuak
AIMAR KARRIKA	
ALAIA MARTIN	
ANDER LIZARRALDE	
BEÑAT UGARTETXEA	
MIKEL ARTOLA	
XABI MAIA	

ZALLA Urriak 7	Puntuak
ENEKO ABASOLO "ABARKAS"	
JONE URIA	
MIREN AMURIZA	
ODEI BARROSO	
OIHANE PEREA	
ONINTZA ENBEITA	

SEGURA Irailak 30	Puntuak
ANDER FUENTES "ITTURRI"	
BEÑAT IGUARAN	
FELIX ZUBIA	
JON MARTIN	
NEREA ELUSTONDO	
UNAI GAZTELUMENDI	

ZUMAIA Urriak 8	Puntuak
ARKAITZ OIARTZABAL "XAMOA"	
ASIER OTAMENDI	
IBON AJURIAGOJEASKOA	
MIREN ARTETXE	
NAHIKARI GABILONDO	
NEREA IBARZABAL	

LEITZA Urriak 1	Puntuak
AGIN LABURU	
IÑAKI APALATEGI	
JULIO SOTO	
OIHANA BARTRA	
OIHANA IGUARAN	
UNAI AGIRRE	

TOLOSA Urriak 14	Puntuak
BEÑAT LIZASO	
ENEKO LAZKOZ	
ETXAHUN LEKUE	
JON MAIA	
MADDALEN ARZALLUS	
XABAT GALLETEBEITIA	

## FINALAURREKOAK (1. itzulia)

BASTIDA Urriak 28	Puntuak
IGOR ELORTZA	
SUSTRAI COLINA	
SEGURAKO IRABAZLEA	
Puntuazioz 1.a	
Puntuazioz 8.a	
Puntuazioz 9.a	

IRUN Azaroak 1	Puntuak
AITOR SARRIEGI	
MAIALEN LUJANBIO	
BAIGORRIKO IRABAZLEA	
Puntuazioz 4.a	
Puntuazioz 5.a	
Puntuazioz 12.a	



## FINALAURREKOAK (2. itzulia)

MAULE-LEXTARRE Azaroak 4	Puntuak
BEÑAT GAZTELUMENDI	
ZUMAIAKO IRABAZLEA	
TOLOSAKO IRABAZLEA	
Puntuazioz 3.a	
Puntuazioz 6.a	
Puntuazioz 11.a	

DURANGO Azaroak 12	Puntuak
AITOR MENDILUZE	
ZALLAKO IRABAZLEA	
LEITZAKO IRABAZLEA	
Puntuazioz 2.a	
Puntuazioz 7.a	
Puntuazioz 10.a	

AMURRIO Azaroak 19	Puntuak
MAULE-LEXTARREKO IRABAZLEA	
BASTIDAKO IRABAZLEA	
Puntuazioz 5.a	
Puntuazioz 6.a	
Puntuazioz 11.a	
Puntuazioz 12.a	

DONIBANE LOHIZUNE Azaroak 26	Puntuak
IRUNGO IRABAZLEA	
Puntuazioz 2.a	
Puntuazioz 3.a	
Puntuazioz 8.a	
Puntuazioz 9.a	
Puntuazioz 14.a	

IRUÑA Abenduak 2	Puntuak
DURANGOKO IRABAZLEA	
Puntuazioz 1.a	
Puntuazioz 4.a	
Puntuazioz 7.a	
Puntuazioz 10.a	
Puntuazioz 13.a	

BARAKALDO Abenduak 17	Puntuak
AMETS ARZALLUS	
Puntuazioz 1.a	
Puntuazioz 2.a	
Puntuazioz 3.a	
Puntuazioz 4.a	
Puntuazioz 5.a	
Puntuazioz 6.a	
Puntuazioz 7.a	

## FINALA

Laboral Kutxa  
bertsolaritzarekin!

## EGIN ZAITEZ BERTSOZALE ELKARTEKO BAZKIDE

Bertsozale Elkartearen egitekoa bertsolaritza zaindu, sustatu, ikertu eta haren transmisioa eta etorkizuna bermatzea da. Helburuok erdiesteko, ezinbestekoa da bazkideon laguntza.

50

### Bazkide egiten bazara...

... Elkartearen egitasmoak gauzatzen lagunduko diguzu: Bertso eskolen sustapena, hezkuntza arautuko irakaskuntza egitasmoa, Bertso Udalekuak, *Hitzetik Hortzera* telebista saioa, bertsozale.eus webgunea, bertsoa.eus plaza digitala, Bertso Eguna, bertsolari txapelketak, Xenpelar Dokumentazio Zentroa, ikerkuntza proiektuak, kulturartea...

... Bertsozale Elkarreak antolatzen dituen ekitaldietarako sarreretan beherapenak izango dituzu.

... urteko bertso saio esanguratsuenak biltzen dituen Bapatean audio-liburua doan jasoko duzu etxean.

... *Bertsozalea* jasoko duzu doan hilero, eta zuzenean jasoko duzu Bertsozale Elkartearen berri.

### Eta Txapelketa Nagusian bazkidetzen bazara...

... Txapelketako bonua erosteko aukera izango duzu.

... finalaurrekoetako zein finalerako sarrerak lehentasunez erosteko aukera izango duzu.

... saio guztietako sarreretan bazkideen prezio berezia izango duzu.

... 2017ko kuota ez duzu ordainduko.

... *Bapatean* audio-liburua jasoko duzu opari (izakinak amaitu arte).

### Nola egin bazkide

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian dagoen formularioa betez edo +34 943694129 telefonora deituz.

BAZKIDE MOTA	URTEKO KUOTA
Norbanako bazkide arruntak	50 euro
Elkarte laguntzaileak	100 euro
18 urtetik beherakoak	Ez dute kuotarik ordaintzen

### Bertsozale Elkartean parte hartzeko moduak

Bertsozale Elkartean egunerokoan soldatapeko eta borondatezko langileak aritzen gara elkarlanean. Elkartearen ateak zabalik daude gogokoen duzun hori eginez parte hartzeko: saio bat antolatzen lagundu, epe luzerako estrategiak diseinatu... Edozein proposamen edo ideia duzularik, bidali mezu bat [bertsozale@bertsozale.eus](mailto:bertsozale@bertsozale.eus) helbidera edo deitu +34 943694129 telefono zenbakira, ongi etorria izango zara.


## Bertsozale Elkartaren urteko jardueraren babesleak



Bertsozale Elkartaren bazkideak



51



## 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia Laguntzen duten udalak

 Baigorriko Udala	 Segurako Udala	 Leitzako Udala	 Zallako Udala	 Zumaiako Udala
 Tolosako Udala	 Bastidako Udala	 Irungo Udala	 Maule-Lexarreko Udala	 Durangoko Udala
 Amurrioko Udala	 Donibane Lohizuneko Udala	 Iruñeko Udala		

# KULTURA EUSKARA HERRIAREN GEROA

